

kukurrukuuu

Bilbotik Enkarterrietara bidean Kastrexana dago.
Hantxe bizi izan Maiñazi,
neska polit eta liraina* baina pizkat buruarina.*
Alaia* ere ba zan eta erromerietara joaten zan.
Behin, dantzan eta dantzan, etxera joateko berandu egin jakon.
Etxera heldu orduko iluntzeko abemariak, jota egozan.
— *Hau don ordua, neska?* — esan eutsan betoskoz* aitak—
iturriko ura ekarteko don oraindino-eta!
Hartu edarrea* garrian eta han doa tipi-tapa eta txairo*
gure neskatila.
Gautu beharran egoan eta iturria urrun, erreka bestekaldean.
Maiñazi, gero eta larriago.

Eta estutasunak
eta arinkerjak* eraginda,* ba dino:
— *Ez ete litzakidak etorriko deabrua*
hemendik hara zubi bat egiteko?
Bebok esanaz batera
DZAST! non agertzen jakon deabrua bera zaldi ganean
— *Zubia nahi badon, neska, neuk egingo deunat.*
baina zubiaren truke, hēure arimea!
— *Ba... emongo deuat* — erantzun eutsan neska txatxaleak.*
Eta berehala,* deabruak, prakagorri talde ikaragarria ekarririk,
zubia egiten hasi zan.
Baina neskeari damutu egin jakon.
Eta itzi bertan behera* edarrea eta arineketan abade agana joanaz

“Jauna, hauxe ta hauxe jazo* jat” esan eutsan.
— *Ene, alabatxo, hik egin doan egitekoa!*
Hōa, hoa arin eta
martian oilarragaz ibilitako
oilaren arrautzatik jaiotako oilar bat aurkitu egin
eta zubia amaitu orduko kukurruku egiten badeuna
salbauta hago!

Arineketan, joan zan etxera eta bila hasi zan.
Etxeko oilotegian ez egoan halango oilarririk;
joan, auzora, eta han ere ez.
Inguru baserrietako oilotegi guztiak arakatu* ebazan.
Dana alperrik.
Zubiginak, barriz, aurrera joiazan... Eta Maiñazi, estu!
Maiñazi, etxeko eta herriko guztiak jo ta su,* ibili ta ibili...
aurkitu egin eben azkenean oilar hori.
Baina nork, orain, kanta erazo?
Denporea aurrera joian...
Ba doa deabrua azken harria ipintera... eta
KUKURRUKUUU! oilarrak jo!
— *Denganino!* — esan eban deabruak atsekabez.*
Eta amorraren amorrus* jotan dau eskuaz azken harri hori
eta bost hatzamarrek markauta itzi eutsazan bertan eta betiko.

* liraina = airosa, garbosa
* buruarina = casquivana
* alaia = alegre

* betozko = ceño fruncido
* edarra = zurezko ontzia
* txairo = dotore, airoso

* arinkeria = ligereza, imprudencia
* eraginda = bultzatuta
* txatxala = casquivana

* berehala = inmediatamente
* bertan behera itzi = abandonar
* jazo = suceder

* arakatu = escudriñar, revolver
* jo ta su = con ahinco
* kanta erazo = kanta eragin

* atsekabea = disgusto
* amorraren amorrus = de pura rabia